

Ordainketa kontu bati lotutako zerbitzu nagusien zerrenda

Servicio	Definición
Kontua mantentzea	Erakundeak kontua kudeatzen du, bezeroak harekin eragiketak egin ahal izateko.
Zordunketa txartel baten jaulkipena eta mantentzea	Erakundeak bezeroaren kontuari lotutako ordainketa txartel bat ematen dio bezeroari. Txartel horrekin ordaindutako eragiketa bakoitzaren zenbatekoa zuzenean eta osorik zorduntzen da bezeroaren kontuan.
Kreditu txartel baten jaulkipena eta mantentzea	Erakundeak bezeroaren kontuari lotutako ordainketa txartel bat ematen dio bezeroari. Adostutako epe jakin batean zehar txartel horrekin ordaindutako eragiketa bakoitzaren zenbatekoa osorik edo partzialki zorduntzen da bezeroaren kontuan, adostutako datan. Erakundearen eta bezeroaren artean gauzatutako kreditu kontratuan xedatzen da erabilitako zenbatekoei interesik aplikatuko zaien ala ez
Berriazko zorpekoa	Erakundeak eta bezeroak aldez aurretik adosten dute bezeroak funtsak erabili ahal izango ote dituen, bere kontuan saldo erabilgarririk ez badu ere. Akordio horretan xedatzen da kasu horietan bezeroak erabili ahalko duen gehieneko zenbatekoa eta horren truke bezeroak komisio eta interesik ordaindu beharko duen ala ez
Zorpeko tazitua	Erakundeak funtsak jartzen ditu bezeroaren eskura kontuan duen saldo erabilgarria amaitzen denean. Ez dago aldez aurreko akordiorik erakundearen eta bezeroaren artean.
Transferentzia	Bezeroaren jarraibideak errespetatuta, erakundeak funtsak transferitzen ditu bezeroaren kontutik beste kontu batera.

Servicio	Definición
Agindu iraunkorra	Bezeroaren jarraibideak errespetatuta, erakundeak zenbateko jakin bateko transferentziak egiten ditu aldian-aldian bezeroaren kontutik beste kontu batera.
Txartelarekin zordunketa bidez dirua ateratzea kutxazain automatikoetan	Bezeroak dirua ateratzen du bere kontutik, beste erakunde bateko kutxazain automatiko batean, txartelaren bitartez; erabilgarri duen saldoan zorduntzen da ateratako zenbatekoa.
Txartelarekin kreditu bidez dirua ateratzea kutxazain automatikoetan	Bezeroak dirua ateratzen du bere erakundeko edo beste erakunde bateko kutxazain automatiko batean, txartela erabilia, betiere funtsak bezeroarentzat irekitako kreditu lerro batek estalita badaude eta kontuan erabilgarri dagoen saldoa edozein izanda ere.
Ohartarazpen zerbitzua (SMS, posta elektronikoa edo antzekoa)	Erakundeak bezeroaren kontuan egindako mugimenduen inguruko informazioa bidaltzen du SMS mezu bidez, posta elektronikoz edo antzeko bitartekoren bat erabiliz.
Txekeen negoziazioa eta konpentsazioa	Erakundeak dagozkion kudeaketak egiten ditu txeke bat kobratu ahal izateko
Txekeen itzulera	Erakundeak beharrezkoak diren ekintzak gauzatzen ditu, beste erakunde batek txeke bat ordaindu ez duenean.